



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Kulturartekotasuna eta honen lanketa Gorputz Hezkuntzaren bitartez

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Madrazo Alvarado, Iñaki

ZUZENDARIA: Reguero Ugarte, Urtzi

2021

AURKIBIDEA

1. JUSTIFIKAZIOA	3
2. KULTURARTEKOTASUNAREN ESPARRU TEORIKOA	4
2.1 Kontzeptuaren aitzindariak	4
2.2 Globalizazioa	6
3. GORPUTZ HEZIKETAREN ERRONKAK GAUR EGUN	7
3.1 Paradigmak	8
3.2 Erronkak	10
3.3 Ekintza motorrak programazioan	11
3.4 Kalitatezko hezkuntza garatu	14
4. LOTURA CURRICULARRA	17
4.1 Oinarrizko konpetentzia	18
4.2 Konpetentzia motorra	18
4.3 Helburuak eta edukiak	19
4.4 Unitate didaktikoa	20
4.5 Ebaluazioa	30
5. ESKU-HARTZEAREN ONDORIOAK	31
6. BIBLIOGRAFIA	34
7. ERANSKINAK	

1. JUSTIFIKAZIOA

Euskal Herria hamaika etorkinen amaierako lurraldea izan da haien bidaiari azken urteetan. *2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana* txostenaren arabera, EAEko biztanleriaren %8.6 etorkina da eta hain aldakorra den egoera honetan, hezkuntzak bere moldaketak egin beharra ditu ikasleriari eta gaur egungo gizarte kulturantzari erantzun egoki bat eman ahal izateko. Tamalez, ikastolak ez daude oraindik prest oraindik egoera honi aurre egiteko eta hezitzaileek ez dute jasotzen beharrezkoa den formakuntza inklusio egoki bat gertatzeko. Gorputz Heziketaren bitartez, ikasleek kultura desberdinak ezagutu eta hauekin harremantzeko aukera eskaintzeko aukera dago eta ikasle etorkin edo jatorri kanpotarrak dituzten ikasleen integrazioa baliotzeko aukera dago. Lan egokia eginez gero, ikasleek elkarbizitzarako konpetentzia egoki bat garatu dezakete, errespetuan eta elkarlanean duena oinarria.

Beste alde batetik ikasleek duten kultura motorra dago, hau da, ikasleek mugitzeko eta jolasteko orduan duten erreperitorioa, aukerak eta jakintzak. Gaur egungo ikasleriaren ehuneko handi batek denbora gehiago pasatzen du etxean bideokontsoletara jolasten parkean baino, eta kalean daudenean ez dute futbol edo saskibaloitik baino haratago ikusten. Ikastoletan ere hareagotu egin da egoera hau Covid-19a dela eta: ikasleek ezin dituzte ez baloi ez beste material ekarri etxetik eta ikastetxean dagoenarekin moldatu behar dira, haien aisialdiko aukerak ikaragarri murriztaraziz. Ikasleek “erreperitorio” hori handitzeko aukera izanez gero, haien aisialdian ere aukera eta barietate gehiago izango dituzte, mugitzera motibatuz eta osasuntsu mantentzen laguntzen.

Gabezia hauek ikusita, eskolek egoerari aurre egiteko eskuhartze bat planteatu dut Gorputz Heziketa orduetan garatu daitekeena. Gradu azken urtea dela aprobetxatuz, praktikan jarri dut 2020/2021 praktikaldian Errekabarri ikastolan, Gasteizen, eta datozen orrietan lan guztiaren plazaratzea gertatuko da.

2. KULTURARTEKOTASUNAREN ESPARRU TEORIKOA

Kultura historian zehar hala emakumeek nola gizonek eraikitako bizimoduen, ohituren, giza-irudikapenen, sinesmenen, arauen, mitoen, baloreen eta erritualen multzoa da (Sáez, 2006).

Atal honetan kulturartekotasuaren inguruko esparru teorikoa eta kontzeptuala azalduko da abiapuntua aitzindarietan jarriz gaur eguneko kontzeptuetara heldu arte. Honekin, lanaren nondik norakoei kontestu bat emango da eta inklusioaren ideia, globalizazioaren eragina eta beste hainbat kontzepturen kokapena egingo da.

2.1 Kontzeptuaren aitzindariak

Inklusioaren kontzeptua 1990. urtean agertu zen Tailandian eta hezkuntzari buruz hitz egiteko baturiko munduko konferentzia batean izan zen. Kontzeptu honek, aniztasuna dela eta agertzen diren liskarrei erantzun bat emateko orduan sorturiko ikuspuntuari deritzo eta minoriak gehiengoaren parte izatea esan nahi du. Bilatzen dena banakoen arteko berdintasuna da eta inoren gailentze motarik ez gertatzea (UNESKO 1990)

Urte berean, integrazioa muin bezala zuen denontzako eta denon artean sorturiko hezkuntza bilatzen zuen Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrekoa Legea (LOGSE)eratu zen.

Nahiz eta aurrera pausuak nabariak ziren hezkuntzaren esparruan, hasiera batean inklusio hori behar bereziak zituzten ikasleei bideraturik zegoen eta ez ikasleria osoari. Honetaz gain, kulturartekotasunaren kontzeptua ez da inon agertzen nahiz eta jarrera batzuk honi egiten dioten erreferentzia.

Dokumentazio desberdinak irakurri ondoren, inklusioa gertatzeko hiru dira landu beharreko ideiak:

- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak.
- Arazo sozialak dituzten pertsonak.
- Kulturartekotasuna landu behar duten ikasleak.


1994an filosofia honi babesa ematea erabaki zitzaion UNESCO-k eta espainiar gobernuak eragindako presioagatik eta hau Salamancako deklarazioan barne biltzen da.

Kontuan izanda gradu amaierako lan honen nondik norakoak, hirugarren ideia honetan jarriko da ikusmira aurrerago.

Baina hezkuntza munduak, ikasleria bateratzeko orduan hainbat kontzeptu landu ditu historian zehar. Besteak beste, lau filosofia identifikatzen dira nagusiki:

Bastertzea sexu, kultura... arrazoiengatik gizarteak (ikasleak kasu honetan) jasaten duen egoera da zeinetan pertsonak ez diren talde nagusiaren parte hartzen.

Segregazioa gutxiengo ikasleak aparteko eskola batera bidaltzeari deritzo, zeinetan hezkuntza-politika bereziak sortzen diren talde bakoitzarentzako. Honen adibide izan daiteke itsuek duten beharrei moldatzen den eskola bat adibidez.



Nahiz eta aspalditik lantzen eta bilatzen den filosofia den inklusioa, gaur egun oso barneratua dagoen beste ideia bat dago. Hau **integrazioa** da eta inklusioarekin desberdintasun batzuk baditu. Nahiz eta bi filosofietan ikasleak eskola berean mantentzeko ahalegina egiten den, integrazioan erantzun berriak emateko nahiarekin, gela desberdinetan (beti edo momentu zehatzetan)

banatzen dira behar bereziak dituzten ikasleak. Eskola inklusiboak ordea, berdintasunean oinarrituriko filosofia izanda, ezberdintasunak alboratzeko premia dute eta denak batera lan egiten da.


Desberdintasun zehatzetara joz gero, ikus daiteke integrazioak kolektiboan duela oinarria. Ikaslea da egoerara moldatu behar dena eta askotan taldetik bereiztuta egotera beharturik dago. Azken batean arrunta eta arrunta ez denaren arteko banaketa egiten da. Inklusioak ordea sujetuan du oinarria eta taldea da egokitu behar dena. Osotasunean izan behar dira ikasleak taldea osatzen dutena beraz ezin da inor kanpoan gelditu eta aniztasuna da hau berezi egiten duena.

2.2 Globalizazioa

Globalizazioaren eraginez, familia askok migratzea aukera bezala ikusten dute bizi baldintza hobeen bila eta haien herrialdeak uztea eta sorte bila mugitzea erabakitzen dute. Hau dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoan biztanleriaren %10.5 baino gehiago etorkinak dira (Eusko Jaurlaritza, 2020) eta Araban zehatzago %11 gainditzen du (Eusko Jaurlaritza, 2018).

1. grafikoa.

EAEn bizi diren atzerriar jatorriko biztanleak (absolutuak eta %), 1998-2020 aldian



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

Egoera honek kuturaniztasuna eta kulturartekotasuna areagotzea eragin du azken urteetan eta gizartea moldatzearen beharra ekarri du. **Kuturaniztasuna** sormenaren, berrikuntzen eta elkartrukeen iturri bezala ulertzen dugu (UNESCO 2001) eta **kulturartekotasuna** ordea, identitate kultural desberdinak dituzten pertsona edo taldeen arteko elkarrekintza zein komunikazio prozesuari deitzen zaiola ulertu behar da (Wikipedia). Kulturartekotasunaren definizio zehatzago bat egin zuten Garcia eta Saezek 1998. urtean:

“Situación social de contacto de diversas culturas regulada por el diálogo y el re-conocimiento mutuo. Connota una relación de igualdad, de intercambio, de diálogo, de participación y convivencia, de autonomía y reciprocidad, de actuar para el conjunto de la comunidad. Supone una búsqueda cooperativa e intencional de un nuevo espacio sociocultural común, sin re-nunciar a la especificidad diferencial de cada una de las partes”

Hezkuntzaren alorrean pisu handia duten kontzeptuak izan arren, guztiz ezartzea lortu ez den kontzeptua da kulturartekotasuna. Ideia hau bideratzeko nahian, Delors txostena sortu zen 1996. urtean eta, besteak beste, lau oinarri landu beharra plazaratzen duena XXI. mendean hezkuntza egokia eman ahal izateko:

- Ezagutzen ikastea.
- Egiten ikastea.
- Batera bizitzen ikastea.
- Izaten ikastea.

Nahiz eta lau zutabeak izan garrantzitsuak, azken biak dira ikaslearen identitatea forjatzen dutena, hau da, aurreko lerroetan aipaturiko inklusioa eta kulturartekotasuna bultzatuko duena.

3. GORPUTZ HEZIKETAREN ERRONKAK GAUR EGUN

Gorputz heziketaren nondik norakoak asko aldatu dira azken urteetan eta egin diren birplanteatuak ikusirik, hamaika dira sortu diren erronka berriak.

Iraganean arazoa ez zen hain agerikoa. Izan ere, kirol errendimendu fisikora bideratzen ziren Gorputz Heziketa saioak eta hauetan ikasleen gaitasun fisikoak ahalik eta gehien hobetzea zen, baita kirol hastapenean emaitza onenak lortzea

ere. Heziketa eredu hau paradigma teknikoaren bidez bideratzen zen, denbora pasa ahala oso kritikatu izan dena. Gaur egungo paradigma ordea, paradigma praktikoa da eta Gorputz Hezkuntzaren ikuspuntua dezente aldatu da.

3.1 Paradigmak

Paradigma grezierako *paradeigma* hitzetik dator eta egoera jakin batean jarraitu beharreko modelo, patroia edo adibideari deritzo. Hezkuntza munduan irakasleak bere ekintzak eta ariketak planteatzerako orduan jarraitzen duen bidea da, baita ikasleek haien heziketa propioan duten eragina ere. Juan Luis Hernández Álvarezek idatzitako liburuan (2004) kontzeptu honen eta honek dakartzan ondorengo informazio iturritik oinarrituriko ideiak plazaratzen ditu eta hau dio, besteak beste:

Paradigma **teknikoa** 1918. urtean sortutako kontzeptua da F. Bobbit hezitzaile ipar-amerikarraren eskutik. Bere ustez, etorkizuneko lantegietan lan egingo zuten pertsonak hezi behar bazituzten, honetara zuzendu behar ziren klaseak eta ikasleek arauak errespetatzen eta enpresa baten parte izango balira bezala jokatzeko ikasi behar zuten. Ideia, hezkuntza Curriculumean landu beharrekoa modu zorrotz batean lantzea zen, ideia horiek barneratzearen intentzio bakarrarekin eta jakintza horiek amaierako produktu bat izango balitz bezala tratatzen.

Teorian oinarrituta dago egindako lan guztia, baita ebaluazioa ere (hau beti izanda mundu teknologikora bideraturikoa), eta horren eraginez, curriculumetik kanpo gelditzen diren jakintzak barneratu gabe gelditzen dira ikasleak.

Klase praktikoari begira, paradigma teknikoak ikaslearen aktibitate maximoa bilatzen da denboraren aldetik, hau da, ahalik eta denbora gehien pasatzea kirola egiten. Honetarako ekintza guztiz planifikaturik eramaten dira eta ikasleek gan, kontrol zuzena ezartzen da hauek egin beharrekoa egin dezaten. Ondo pasatzea eta ikasleak espontaneoak izatea ez dago heziketa egokiaren parte ikusten, dinamika moztu edo ikaslea atzeratu dezakeelako. Ikasleak panpinak bezala ikusten ditu irakasleak, berak nahi duena egiten ez badu, apurturik dagoela esaten duena.

Paradigma honetan normaltzat hartzen da soilik gaitasun fisiko onak dituenarekin lan egitea eta beste ikasle "trakets"-agoak albo batera uztea eta hauek desmotibazioa dela eta, hobekuntzarik ez izatea. Izan ere, ikasle askok Gorputz Hezkuntza gorrotatzen amaitzen du (eta ondorioz kirola) irakasleak ez diolako behar duen laguntza edo atentzioa ematen.

Finean, Velazquez Buendiak (1997:177) esan zuena da paradigma teknikoa: "se considera al aprendiz un sujeto pasivo que registra mecanicamente las informaciones y aprendizajes que va opteniendo "

Paradigma **praktikoan**, teknikoan ez bezala, ikasleriaren heziketa pertsonala bilatzen da jarduera fisikoaren bidez. Irakasleak curriculum hartzen du oinarri bezala eta ez gida bezala ikasleek gaitasun fisiko desberdinak lantzeko. Honekin batera ikasleen autonomia, parte-hartzea eta esperientzien bidez haztea bilatzen da.

Paradigma praktikoak ikaskuntza kualitatiboa izan behar dela defenditzen du, curriculumean ageri diren ikaskuntzak prozesu bat bezala hartzen dituen ikaslearen beharrak asetzeko. Ikasitako teoria praktikaldia gidatzeko eta hobekuntza bat bilatzeko egiten den prozesua dela defenditzen du paradigma praktikoak eta emaitza bezala, ikasleria kritiko eta zuhur bat hezitzea.

Gorputz Hezkuntzan ikasleriaren partehartzea bilatzen duen paradigma da paradigma praktikoak. Ikasgaiaren prestakuntza prozesuan, ikasleek hitza daukate eta irakaslearen lana, hezitzaile eta gidari bezala, ikasleriaren ideak praktikotasunean barne-hartzea izan behar da. Irakasleak ezin du ikasleen gaitasun fisikoak soilik landu, baizik eta ekintza eta jolas desberdinen bidez, egoera desberdinei aurre egiteko gaitasunak landu edo gizartean integratzeko baliagarriak diren trebetasunak barneratzen lagundu behar die. Egia da modu ez-zuzen batean, gaitasun fisikoak lantzen direla, baina ez dira egiten diren ekintzen xedea. Ikasleen mugimenduaren bidezko gozamina bilatzen da, kirola egitera eta jolastera animatuz ikastolatik kanpo ere, baita bizitza osasuntsu bat jarraitzera motibatuz.

Ebaluatzerako orduan, ez da begiratzen zenbat denboraz diren gai korrika egiteko edo zein urrun jaurti dezaketen baloi bat. Horren ordez, bakoitzaren

gaitasunaren norainokoak zeintzuk diren ebaluatzen dira eta hauek nola erabili bakoitzaren interes eta beharretara.

3.2 Erronkak

Behin bi kontzeptu hauek definiturik daudela, hezkuntza gizarteak egin behar duen galdera hurrengoa da: zein da Gorputz Hezkuntzaren lana gaur egun?

Jarduera fisikoa egitea izan behar da gakoa, erregularitasun baten barruan eta ikasleak motibatuz gehiago egitera paradigma praktiko baten eskutik (Tinninger, 1996). Ikasleek garapen integral bat izan behar dutelaren zalantzarik ez dago, baina horretarako ikasleen gaitasun fisikoak indibidualizatzea alboratu eta orokorragoa den hezkuntza bat planteatzea da bidea.

Gaur egun hiru dira Gorputz Hezkuntzak dituen erronkak: zer da ikasleek ikasi behar dutena erabakitzea (1), G.H.-k ikasleen garapen integralean duen pisua plazaratzea (2) eta ikasgaiak izan ez duen izaera profesionala garatze (3).

(1) Lehenengo erronkaren inguruan, irakasle askok jokaera motorra bultzatzen dute soilik, baino eduki zehatz eta argi batekin lan egin gabe. Hauen ideia nagusia ikasleek ondo pasatzea da eta edukietan edo metodologian fokoa gehiegi jarri gabe aritzea. Urte osoan zehar jolastutako jolasak zerrendatzearen joera izan ohi dute gero hau berrerabiltzeko (López, 2016).

(2) Garapen integralaren inguruan hitz egiterako orduan, ikasleen garapen fisiologiko, psikologiko eta sozialaren inguruan hitz egiten da eta ez soilik gorputzaren inguruan. Denborak aurrera joan ahala, Heziketa Fisikoari baliabideak eta denbora murrizten joan zaio, kontua izan gabe gaur egungo gazteria gero eta sedentarioagoa dela (ONU). Eskoletatik honi aurka egingo balitz ordea, ikasleek haien osasuna hobetzeko aukera izango luketen, beti ere jarraikortasun batekin eginez gero.

Lana ondo eginez gero, ikasleak motibatu egingo dira ikastetxetik kanpo mugitzera, bai jolasten baita kirol zehatzak egitera, haien osasuna gehiago hobetuz eta ohitura osasuntsuagoak garatzeko etorkizunerako.

Baino kontuan izan beharrekoa da hau gertatzea ez dela soilik Gorputz Hezkuntzako irakasleen lana. Hauek izan behar dira bultzatzaileak baina eskola eta orokorrean hezkuntza sistemak bateratzen duen mundu guztiaren lana da ikasleen bizitza osasuntsua bultzatzea. Prozesu honetan ezin dira gurasoak eta familia ahaztu, hauen erreferente direnak eta batzuetan ere ez dutena informazio eta heziketa hau garatzeko (Sanchez, M., Ruiz, B., 1990).

(3) Heziketa fisikoak denboran zehar merezi ez duen fama bat irabazi du arrazoi desberdinengatik: ebaluazio berdinak ikasle guztientzat, jolas libre gehiegi, sekuentzia didaktiko orokorregiak edo oinarri gabeak erabiltzea edo entrenamendua oinarriztat hartzea. Honi aurre egiteko, hiru erronka desberdin ditu gorputz hezkuntza curriculumak: Garapen fisiko-motorra, kultura motorra sustatzea eta garapen integrala garatzea gizarteari begira. Azken honek bai oinarrizko gaitasunen zein gaitasun motrizen garapen integralari egiten dio erreferentzia eta ez zaio soilik G.H.-ko irakasleei esleitzen. Aurreko bi erronkak gorputz hezkuntzak landu beharreko erronkak dira ordea.

Erronka hauekin aurrera egiteko, ekintza motorretan oinarrituriko sekuentzia didaktikoak erabiltzea da aukerarik onena, jarraitasun bat emateko aukera ematen duelako eta antolakuntza errazten duelako.

3.3 Ekintza motorrak programazioan

Ekintza motorrek ez dute soilik ikasleen mugimendua bilatzen, baizik eta haien jokaera ekintzaren garapenean zehar, hau da, erabakiak, emozioak, estrategiak...

Ekintza motorrak jarritz sekuentzia didaktikoen jarraibide bezala, ariketek norabide zehatzago bat izango dute, ikasleen interakzio zehatz bat lortuz eta inplikazioa areagotuz. Parlebásek (1999: 103) horrela definitu zituen egoera motorrak: "campo en el cual todas las prácticas corporales que lo integran son consideradas homogéneas bajo la mirada de criterios precisos de acción motriz". Garrantzitsua da ere jakitea egoera sozomotor eta psikomotorren artean. Izan ere, Joseba Etxebesteren hitzetan, jokalaria baten ekintzek beste

jokalariren batean eragina izanez gero, egoera soziomotorra gertatzen da eta hau gertatzen ez bada, egoera psikomotorra da.

Ekintza motor desberdinak daudela jakinda, banaketa desberdinak egiteko aukerak dakartza, baina datozen lerroetan sei domeinutan banatuko dira, Larrazek 2008an egindako banaketaren arabera:

1. Ingurune fisiko egonkorretan oinarrituriko ekintzak.

Ekintza horiek ingurune fisiko egonkor, egokitu edo ez, eta besteekin zuzeneko interakziorik ez duen batean egiten dira. Horrek esan nahi du haurra egokitu egin behar dela, gero eta jokabide motor eraginkorragoak lortzeko, ingurunearen eskakizunen arabera. Ekintza motorra automatismoan eta estereotipo motorrean oinarritzen da, eta trebetasun-maila handia lortu nahi du.

Adib: Igeriketa, diaboloa, karatean *katak* egiterakoan...

2. Aurkaritzan oinarrituriko ekintzak.

Norbanakoen arteko aurkaritza eragiten dituzten ekintza motorrek "bat bestearen aurka" jartzen dute ikaslea antagonismo eskusiboko egoeretan; egoera horietan ziurgabetasuna ez dator ingurunetik (egonkor irauten baitu), areriotik baizik.

Adib: arte martzialak, esku pilota, harri-horri-har...

3. Elkarlanean oinarrituriko ekintzak.

Ingurune fisiko egonkor batean, ikasle-taldeak lankidetzan jardun behar du helburu bera lortzeko. Ikaskideekiko elkarreragina ezustekoaren iturri bihurtzen da, eta zeregin komuna betetzeko egokitzapenak ezartzen ditu. Horrek esan nahi du ekintza eraginkorragoa lortu behar dela eta elkarreraginaren ondoriozko ziurgabetasuna murrizten saiatu behar dela.

Adib: Acrosport, soka saltoa...

4. Elkarlan eta aurkaritzan oinarrituriko ekintzak.

Domeinu honetako jarduerak ingurunearen ziurgabetasuna ez dagoen espazio batean egiten dira, eta talde arteko liskar batean oinarritzen dira, haien alde indar-harreman bat konpontzeko.

Etengabeko elkarrekintza testuinguru batean, ikasleak bere ikaskideen eta aurkarien jokabideak ulertzen ahalegindu beharko da, logika kolektibo batean barneraturiko hautu estrategikoak egiteko.

Adib: Talde kirolak (futbola edo saskibaloa), polizia eta lapurrak...

5. Ingurune fisiko ez-egonkorretan oinarrituriko ekintzak.

Eremu honetako oinarritzko ekintzak lekualdaketak dira, materialekin edo materialik gabe. Hainbat ziurgabetasun-maila izan ditzakeen eta gutxi gorabehera egokituta egon daitekeen ingurune naturalean egin ohi dira; horregatik, ikasleak ingurune fisikora egokitutako jokabideak antolatu eta ekintza motor espezifikoak egin behar izaten ditu. Erantzuna ingurunearen ezaugarrien aldaketek modulatzeko dute.

Adib: naturan egiten diren ekintza gehienak (soka gabeko eskalada edo surfa)

6. Oinarri artistikoak eta/edo adierazkorak dituzten ekintzak.

Helburu estetikoak eta komunikatiboak dituzte, eta ekintza kolektiboko proiektuak eragin ditzakete.

Horrelako ekintzak biltzen dituzten jarduerak eskakizun bikoitz baten inguruan antolatzen dira: adierazpena eta komunikazioa, biak batera doaz sormen-prozesuan. Beraz, ikasleak sortzaile, interprete eta ikusle/epaile/kritiko rolak esperimendatuko ditu.

Adib: Jolas kantatuak, gorputz-adierazpena, dantza...

Ekintzetan fijatuz gero, ikus daiteke beste banaketak ere egin daitezkeela hala nola, lankidetzaren dutenak edo ez dutenak, aurkaritza dutenak edo ez dutenak, ziurgabetasuna dutenak edo ez dutenak...eta hauen nahasketak ere izan daitezke.

Domeinuekin lan egiterako orduan, zehaztasun gehiagorekin lan egiteko aukera ematen du, ikasleek landu nahi denaren ideia argiago bat dagoelako eta hau nola burutu laguntzen duelako. Gainera ez da soilik garapen fisiko bat bilatzen, baizik eta elkarbizitzan aurrera pausuak ere egiteko balio duelako. Onuren inguruan hitz egiterako orduan, Larrezek bost probetxu identifikatu zituen 2009an:

1. Antolatzeko aukera hobea.
2. Programazio didaktikoa egiteko erraztasunak.
3. Curriculumeko edukiak garatzeko erraztasunak.
4. Sozialki garatzeko erraztasunak.
5. Konpetentzia zehatzak garatzeko erraztasunak.

Beste batzuk ere badira abantailak Lopezen hitzetan (2016), epe luzeko programazioa garatzeko aukera edo edukiak etapa bakoitzean zehatzeko aukerak besteak beste, baino orokorrean eta denak ados dauden ideia gorputz hezkuntzari barne koherentzia emateko aukera ematen duela da.

3.4 Kalitatezko hezkuntza garatu

Lehenago aipatu bezala, iraganean hezkuntza eraginkorra edo paradigma teknikoan oinarrituriko heziketa bat garatzen zen, ikasleen garapen fisiko hutsa bilatuz, baina gaur egun hezkuntza eraginkorra edo paradigma praktikoa oinarrituriko heziketa da bultzatu beharrekoa, ikasleen beharretan oinarritzen dena eta garapen integrala bilatzen duena.

Kalitatezko hezkuntza egokia garatzeko, lau dira faktoreak, besteak beste, jarraitu beharrekoak, ikasleek haien heziketa progresibo, eraginkor eta integrala gertatzeko:

PLANGINTZA

Lehenengo pausua hausnarketa bat egitea da, landu nahi diren helburu eta gaitasunei araberako esku-hartzea sortzeko. Kontuan izan beharrekoak dira ikasleen ideiak eta beharrak, baita sekuentziak izan beharreko oinarri soziala. Negoziaketa planifikazioaren atal garrantzitsu bat, ikasleek landuko diren edukien erabakian parte hartzeko aukera izan behar dutelako. Azkenik, prozeduraren garrantzia ikusi behar da, ikasleen eskema mentalak eraldaketan eta informazio barneraketan jarriz fokoa eta ez azkeneko emaitzan.

ANTOLAKETA ETA KONTROLA

Ikasle-irakasle autoritate erlazioa ezin da oso desorekatua izan, hau da, ikasleek ezin diote beldurra izan irakasleari eta horregatik ikasgela kontrolatu. Autoritate erlazioa egokia izateko, errespetuan oinarrituriko erlazioa izan behar da, baina ez soilik ikasleen aldetik, norantza bikoitzeko errespetua baizik. Arauak hasieratik adostuz, mehatxuak alde batera utzi behar dira, pazientziaz jokatzuz eta malgu jokatzuz ikasleekin. Haiak izan behar dira protagonistak.

Antolakuntzari dagokionez, ikasleak honen parte izan behar dira, askatasuna emanaz materiala aukeratzeko edo taldeak egiteko. Proiektuaren parte sentitu behar dira azken finean.

IRAKAS METODOA

Arazo egoera batean oinarritzen den metodologia da erabili behar dena, hau da, ikasleek duten gabezia bati aurre egiteko metodologia da. Ikasleek eta irakasleak limite edo arau batzuk erabakitzen dituzte eta hauen barruan askatasunez jokatzeko aukera izango dute, haien sormena erabiliz egoerari aurre egiteko. Irakasleak askatasun horren barruan hartzen diren erabakiei egin beharko die erreferentzia honen feedbacka ematean eta hau esanguratsua izan beharko da ikasleen heziketa integrala garatzeko.

EBALUAKETA ETA FEEDBACKA

Ebaluaketa egiterako orduan, irakasleak prozesu guztian zehar gertatutakoa ebaluatu behar du eta ez soilik amaierako emaitza. Honekin, prozesuan zehar biziako egoerak eta honen aurrean garaturiko jarreraren inguruko feedbacka eman ahal zaie hauen inguruan.

Ebaluazioa garatzeko hamaika metodo daude baina 2003an Hellisonen mailetan banaturiko ebaluazioa plazaratu zuen eta denborak aurrera egin ahala, ikasleak maila hauetan gora egingo zuten:

- **Besteen eskubideak eta iritziak errespetatzea.** Maila honetako helburua elkarbizitza-giro egokia lortzea da, ikasleen arteko eta irakasle arteko harremanak errazteko.
- **Parte-hartzea eta ahalegina.** Maila honetan, ikasleek besteekiko gutxieneko errespetua izateaz gain, gogo onez parte hartzen dute jardueretan, irakasleak gainbegiratuta.
- **Norbere autonomia.** Maila honetan dauden ikasleek errespetua eta parte-hartzea adierazteaz gain, gainbegiratu gabe lan egiteko gai ere badira, eta beren beharrak identifikatu ditzakete. Beren programak planifikatzen eta gauzatzen hasten dira.
- **Besteei laguntzea eta lidergoa.** Parte hartzeaz eta autonomoak izateaz gain, motibatuta daude beren erantzukizun-zentzua beren buruez harago zabaltzeko, lankidetzaren bidez, interesa eta laguntza erakutsiz.
- **Gimnasiotik kanpo (transferentzia).** Azken maila honetan, programatik kanpo landu den guztia praktikan jartzea da helburua, hau da, gainerakoentzat eredu ona izatea.

Ebaluazio honetan gizartean eta jokabide sozialetan jartzen da fokoa besteak beste, eta nork bere garapenaren eta ongizatearen erantzukizuna hartzea eta besteen ongizatean laguntzea du muga.

Ebaluazioaren parte ere bada ikasleen egoera ikustea eta ea gustura dauden edo ez antzematea. Errefortzu positiboaren bitartez ikasleak motibatu eta saioetan ahalik eta gehien disfrutaraziz emaitzak gora egiten dute eta.

Gorputz hezkuntzak, beste ikasgai guztiak bezala, hezkuntza curriculumean dauka oinarria eta hau alderdi teoriko eta praktikoaz eraikia dago, baina Gorputz Hezkuntzak praktikotasunaren bitartez garatu beharreko heziketa da. Alderdi kuantitatiboa alde batera utziz, alderdi kualitatiboa izan behar da hezitzaileak bultzatzen duena. Argi dago teoria landu beharra dagoela oinarri bat izateko landuko denaren inguruan, baina ezin du praktikak baino pisu gehiago izan, izana ere, praktikaldia hobetzeko bideratu behar da teoria.

Ikasleak saioan zehar gertatutakoaren inguruan hausnartu eta horekiko irtenbide, zergatia edo bestelako erantzun bat eman beharko dio (paradigma praktikoaren gakoetako bat). Metodo honek egoera desberdinei erantzuna emateko gaitasuna sortuko die ikasleei, berak eraikiz bere heziketa eta irakaslearen lana bideratzaile edo laguntzaile lana bihurtuz.

4. LOTURA CURRICULARRA

Eskolak ikasleen garapen integrala bilatu behar duen prozesua eraman behar du aurrera eta ez soilik heziketa akademiko hutsa. Ikasgai bakoitzak ikasleak gizaki bezala hasten lagundu behar du eta hori ere aplikatzen da Gorputz Hezkuntzan. Ikasleak garapen fisiko egokia izatea da oinarrietako bat baina ikasgai honek aukera handiak ematen ditu ikasleen garapen psikologiko zein soziala garatzeko, elkarrekintza burutuz beste ikasleekin eta pentsatzera behartuz jolasetara jolasteko unean.

Kulturartekotasuna ikasleen garapen sozialaren zati handi eta garrantzitsu bat da gaur egun, aurrera doan globalizazio prozesua dela eta gertatzen diren interakzioengatik. Kulturartekotasunak ikasleen arteko kultura eta jatorri desberdinak oinarri izanda hauen errespetua, lankidetzeta eta finean gizarte osasuntsuagoa eraikitzen laguntzen du. Hau txikitatik landuz gero, ikasleek denboraz garatuko dute modu egoki bat gizarteratzeko.

Hau jakinda, bi ideien arteko konbinazioa aurrera eramaten duen eskuhartzea plazaratuko da orain, ahalik eta potentzial gehien ateratzen diona kontzeptu hauei, hau da, gorputz hezkuntzaren bitartez eta honek dakartzan onurekin kulturartekotasuna lantzea lehen hezkuntzako ikasleekin.

Heziberri 2020 dekretua da gaur egun indarrean dagoen dekretua eta hau da oinarriztat hartu dena garatuko den eskuhartzea prestatzeko.

4.1 Oinarrizko konpetentzia

3. Elkarbizitzarako konpetentzia

Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsoneri aitortuz nor bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari.

Gorputz Hezkuntzara bideratzekoan, elkarlana eta errespetua izango da bilatzen dena, elkarbizitzarako oinarrizkoak diren gaitasunak eta taldean lan egiteko ohitura garatuz.

Osagaia:

- Norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratortzen diren arauak betetzea.

4.2 Konpetentzia motorra

Autonomiaz, izaera kritikoz, sormenez eta adierazkortasunez lantzea norberaren, gainerako pertsonen eta ingurune fisiko eta kulturalaren jardun-eremu motorreko egoerak, eta jokabide motorra lantzen laguntzen duten jakintzak, prozedurak eta jarrerak barneratzea, jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarri batean oinarrituta, ongizate osoa lortzen laguntzeko.

Osagaia:

Jokabide motorra erabiltzea norberaren kultura-nortasuna sendotzeko, herriaren balioak indartzeko, eta kulturartekotasuna eta intrakulturalitatea onartu eta balioesteko.

4.3 Helburuak eta edukiak

Etapako helburuei dagokionez, nire proiektuaren oinarri izateko baliagarriena dena hurrengo da: “Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako jolas-tradizioak, jarduera fisikoen eta kirol-jardueren tradizioak nahiz adierazpen-tradizioak ezagutzea, haien balioak errespetatzeko eta balioesteko, jolas eta adierazpen tradizionalak eta herrikoiak praktikatzuz”. Hala ere, pertsonalki lortu nahi ditudan helburuak ere plazaratu nahi ditut, hezkuntza curriculumean jartzen duenaz apur bat aldenduz:

1 Jolas desberdinak *ikastea*, lurralde desberdinetako jolas eta kirolak *ezagutzuz*, ikasleen kultura motorra *handitzeko*.

2 Kulturartekotasuna *lantzea*, ikaskideen lurraldeen inguruko informazioa *jasoz*, errespetua eta jakinmina *garatzeko*.

3. Motrizitate orokorra *lantzea*, arlo desberdineko jolasak *eginez*, garapen fisikoa *gertatzeko*.

Edukiak multzoak begiratzean heziberri 2020 dekretuan, bostgarren multzoa egokiena dela iruditu zait, nire sekuentzia didaktikoaren nondik norakoak identifikatu eta gero:

- Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza

Hiru multzo desberdinetan banatu ditut lortu nahi diren edukiak; kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoen artean alegia:

Kontzeptuak	Prozedurak	Jarrerak
2.1. Kultura motorra 2.2. Kulturartekotasuna 2.3. Motrizitatea eta garapen fisikoa	2.1. Munduko jolasen ezagutza. 2.2. Ikaskideekiko errespetu garapena. 2.3. Mugimenduaren eta garapen fiskoaren prozesua.	2.1. Izaera partehartzailea 2.2. Lankidetzarako prestutasuna 2.3. Ikaskideekiko errespetua

4.4 Unitate didaktikoa

1. SAIOA – KULTURARTEKOTASUNA G.H.-N				
Data: 2020/03/10	Maila: 2. maila	Ikasleak: 25	Lekua: Patioa	Materiala: Musika aparatua, uztaileak.
EDUKIAK: <ul style="list-style-type: none">• Harremanak eta komunikazioa lantzea pertsonekin (enpatia eta asertibitatea).• Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.• Inguruko hizkuntza-eta kultura-aniztasunaren aldeko jarrera balioestea.• Jolaseko arauak, jarraibideak, estrategiak eta haietan parte hartzen duten pertsonak onartzea eta errespetatzea. Joko garbiko kode bat egitea eta betetzea.• Gatazkak kudeatzea.		HELBURUAK: <ul style="list-style-type: none">• Mundu osoko jolas desberdinak ezagutzea eta jolastea gero ikastetxetik kanpo jolastu ahal izateko.• Herrialde desberdinen jolasak ikastea eta lurralde horien inguruan ezagutzak handitzea		
HASIERA	Gorputza berotu eta aktibatzeke ikasleak mugitzen eta dantzan egon beharko dira eskubaloi zelai erditik. Musika gelditzean uztaile baten barruan sartu behar dira. Erronda bakoitzean uztaile batzuk kentzen dira ikasleak elkarri laguntzera behartuz denak uztailetan egon nahi izanez gero.			

